

AIETE ETA PARTE ZAHARREKO ANBULATEGI BERRIEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, anbulategi berriak direla-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2018ko urtarrilaren 15eko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Alkateak aurtengo erronkak adierazi zituenean, besteak beste, anbulategi berrien obrak noiz hasiko diren ez zuen aipatu. Arraindegiko obrak aurten hasiko direla iragarri zuen, baina Udalak eraikina berreskuratu zuenetik bi urte eta erdi joan dira dagoeneko, eta oraindik ere ez dakigu noiz hasiko diren anbulategia egiteko obrak.

Aieten Udal Gobernu honekin egoera okertuz joan da. Osakidetzari lur saila lagatzeko urtebete behar izan zuten, eta atzerapenak direla-eta aurten ere ez dira hasiko obrak.

Gogorarazi behar da, aurreko agintaldian, Udalak Bretxako Arraindegi eraikina berreskuratu zuela eta hari esker, Osakidetzari lehen lagapena egin zitzaiola 2015eko maiatzean. Orduz geroztik, bi urte eta erdian, ez da aurrerapausorik eman. Eta gaur egun, plan bereziari egindako alegazioak direla-eta, eta ez delako kudeaketa egokia egin, beldur gara ez ote den are gehiago atzeratuko. Aieteri dagokionez, aurreko agintaldian, anbulategia jartzeko lursaila aukeratu zen: ez zen prozesu batere erraza izan eta gainera, auzotarren eskutik egin zen (eta lursail honen metro batzuk Udalaren izenean jabetzaren erregistroan jartzeko bidea ere eginez).

Honegatik guztiarengatik, hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Aieteko eta Parte Zaharreko osasun-etxeak lehenbailehen gauzatzeko eman beharreko pausoak eman ditzala, donostiarren lehentasun nagusietako bat dira-eta.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

2-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Parte Zahar eta Erdialdeko eta Aieteko auzotarrekin bilerak egin ditzala, osasun etxeei buruzko informazioa helaraz diezaien.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 18an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia